TOLOSAKO UDALA

## GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ALORREKO LANKIDETZARAKO ETA GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA ESPEZIFIKOA

**1.- Helburua**

Oinarri hauen helburua da gizarte ekintzaren esparruan jarduerak, proiektuak edo programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona edo erakundeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzea.

Beraz, artikulu komun hauen bidez, orokorrean Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuak emango dituen diru-laguntzak arautuko dira; eta ondoren jasotako eranskinen bidez, berriz, jarduera-lerro bakoitzaren alderdi bereziak.

Diru-laguntza lerro hauek arautzen dira oinarri hauetan:

1. Tolosako udalerrian eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak elkarteei.

2. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko jarduerak egiteko diru-laguntzak elkarteei.

3. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarteen mantenurako diru-laguntzak.

4. Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapenerako lankidetza proiektuak egiteko diru-laguntzak elkarteei.

5. Nazioarteko lankidetzan boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak.

6. Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko diru-

## ORDENANZA ESPECÍFICA DE SUBVENCIONES PARA LA COOPERACIÓN Y DESARROLLO EN EL ÁMBITO DE SERVICIOS SOCIALES Y SALUD

**1.- Objeto**

El objeto de las presentes bases es la regulación de las subvenciones a conceder a personas o organismos que realizen actividades, proyectos o programas en el ámbito de la acción social.

Por tanto, por medio de estos artículos comunes se regularán, con carácter general, las subvenciones a conceder por el departamento de Servicios Sociales y Salud del Ayuntamiento de Tolosa, mientras que por medio de los siguientes anexos, las aspectos especiales de cada línea de actuación.

En estas bases se regulan las siguientes líneas de subvenciones:

1. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización para la transformación social en el municipio de Tolosa.

2. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades en el área de servicios sociales y salud.

3. Subvenciones para el mantenimiento de asociaciones del área de servicios sociales y salud.

4. Subvenciones a asociaciones para la realización de proyectos cooperación para el desarrollo en países empobrecidos.

5. Subvenciones para personas que colaboran voluntariamente en cooperación

| | |
|---|---|
| laguntzak. | internacional.<br>6. Subvenciones para la realización de proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia. |
| **2.- Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak** | **2.- Requisitos para la solicitud de subvenciones** |
| Ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautaako diru-laguntzak: | Podrán solicitar las subvenciones reguladas en estas bases las personas físicas o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos: |
| - Irabazi asmorik ez izatea | - No tener ánimo de lucro |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean edo Tolosako izaera sozialeko elkarteen erregistroan inskribatuta egotea | - Estar inscrita en el Registro General de Asociaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco o el registro de asociaciones de carácter social de Tolosa. |
| - Elkarteak bere egoitza nagusia edo legez eratutako ordezkaritza iraunkorra Tolosan edukitzea. | - Tener la sede principal o delegación legal permanente en Tolosa. |
| Salbuespen gisa, diru-laguntza jaso ahal izango dute Tolosarentzat interesgarriak direla iritzitako gizarte jarduerek ere, elkartearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Tolosan ez badute ere. Baina, nolanahi ere, diruz lagunduko den ekintza Tolosan gauzatu beharko da. | Excepcionalmente, también podrán ser perceptoras de subvenciones las actividades sociales consideradas de interés para Tolosa, aunque la sede o delegación social de la asociación no esté en el municipio, siempre y cuando la acción a subvencionar se lleve a cabo en la localidad. |
| Era berean, onartu ahal izango dira Tolosako ordezkaritza legez eratuta ez daukaten elkarteen proposamenak, Tolosarentzat interesgarriak direla ondorioztatzen bada, beti ere elkartearen zuzendaritzak baimentzen badu ordezkari iraunkor hori diru-laguntzaren izapidea burutzeko. | También podrán ser admitidas las propuestas de asociaciones que no tengan constituida legalmente la delegación en Tolosa, si se considera que las mismas son de interés para Tolosa, siempre que la dirección de la asociación autorice un/a delegado/a permanente para que tramite la subvención. |
| - Diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoa edo juridikoa edo diru-laguntza jasotzeko egoera legitimoan dagoena izango da diru-laguntza hauen onuraduna. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinean jasotzen diren baldintza espezifikoak bete beharko ditu. | - Será beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que vaya a realizar la actividad objeto de la subvención o que esté en situación legítima para recibirla. Dicha persona deberá cumplir también los requisitos específicos |

| | |
|---|---|
| - Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren zerga betebeharrak egunean izatea.<br><br>Diru-laguntzen eskaerekin batera aurkeztu beharreko zerga-ziurtagiriak edo Gizarte Segurantzakoak ez dira aurkeztu beharko, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badio ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak diru-laguntzen organo kudeatzaileari emateko.<br><br>Ezingo dute oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izan:<br><br>- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.<br><br>- 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.<br><br>- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.<br><br>- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako printzipioaren helburuak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legea).<br><br>Pertsonek edo erakundeek, kasuen arabera, zinpeko aitortza bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. | reflejados en el anexo de cada línea de subvenciones.<br><br>- Estar al corriente de las obligaciones tributarias de la Seguridad Social y de Hacienda.<br><br>No se aportarán los junto con la solicitud de las subvenciones los certificados tributarios ni los de Seguridad Social, si el interesado permite expresamente al organismo competente para expedir los certificados que proporcione sus datos al órgano que gestiona las subvenciones.<br><br>No podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por estas bases:<br><br>- Las personas u organismos que se encuentren en una de las situaciones previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.<br><br>- Las personas físicas o jurídicas que hayan tenido sanciones administrativas, laborales o penales por motivo de delitos sexuales, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.<br><br>- Las personas físicas o jurídicas que no cumplan los requisitos indicados en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.<br><br>- Las personas físicas o jurídicas que no cumplan los objetivos del principio de igualdad entre mujeres y hombres (Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres).<br><br>Las personas u organismos, según el caso, pueden acreditar por medio de una declaración jurada que no están in cursas en ninguna de las prohibiciones para ser |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| | beneficiario. |
| **3.- Eskaerak.** | **3.- Solicitudes.** |
| 1. Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira eskaerak; Pertsona juridikoek (elkarteek), TELEMATIKOKI aurkeztu beharko dituzte eskaerak www.tolosa.eus helbidean, eta pertsona fisikoek Telematikoki edo aurrez-aurre aurkeztu ahal izango dituzte, herritarren arretarako zerbitzuan – UDATEN (Plaza Zaharra, 6 helbidean), diru-laguntza hauen urteko deialdian jartzen duen epean, diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinean adierazten den dokumentazioarekin batera. | 1. Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Tolosa; las personas jurídicas (asociaciones), TELEMÁTICAMENTE, en la dirección www.tolosa.eus, y las personas físicas Telemáticamente o presencialmente, en el Servicio de Atención Ciudadana UDATE (Plaza Zaharra, 6), en el plazo dispuesto en la convocatoria anual de estas subvenciones, junto con la documentación indicada en el anexo de cada línea de subvenciones. |
| 2. Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko du eskatzaileak: | 2. Junto con la solicitud el solicitante deberá presentar la siguiente documentación: |
| a) Entitate eskatzailearen estatutuak. | a) Los estatutos de la entidad solicitante. |
| b) Identifikazio fiskalaren zenbakia. | b) Número de identificación fiscal. |
| c) Ahalmena edo ordezkaritza baimena. | c) Autorización de facultación o representación. |
| d) Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria. | d) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias con Hacienda. |
| e) Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria. | e) Certificado de estar al corriente de las obligaciones de la Seguridad Social. |
| f) Eskatu nahi den laguntza ildoaren inguruko informazio xehea (proiektua, jarduera edo ekintzarena) eta aurrekontu osatua (sarrerak eta gastuak). | f) Información detallada acerca de la línea de ayudas que se quiere solicitar (proyecto, actividad o acto) y presupuesto completo (ingresos y gastos). |
| g) Diru laguntza emateko erabiliko den kontu korrontearen titularitatea adierazten duen agiria. | g) Documento con la titularidad de la cuenta corriente que se utilizará para la subvención. |
| 3. Diru-laguntza eskatzen duen pertsonak aukeratu dezake kudeaketa-organoari baimena ematea, organo horrek eskatzailea zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean | 3. La persona solicitante de las ayudas puede optar por autorizar al órgano gestor, para que se haga con el certificado o justificante de estar al corriente en las |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| dagoela adierazten duen ziurtagiria edo egiaztagiria eskura dezan. | obligaciones tributarias y en las de la Seguridad Social. |
| 4. Eskatzen den agirietako bat dagoeneko Tolosako Udalaren organoren baten esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatzen duena, baldin eta agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazten badu eta dokumentu horien jatorrizko prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. | 4. En caso de que alguno de los documentos solicitados ya esté en poder de algún órgano del Ayuntamiento de Tolosa, el solicitante de la ayuda podrá acogerse a lo dispuesto en el art. 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si indica qué día y en qué órgano u oficina se hizo o se recogió el documento, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde que concluyó el procedimiento original del mismo. |
| 5. Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan. | 5. Las solicitudes también podrán presentarse en los lugares o por los medios indicados en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| 6. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akastunak badira edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsok zuzentzeko; epe horretan zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela pentsatuko da, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez. | 6. Si el impreso de solicitud o los documentos que la acompañan están incompletos o son defectuosos, se concederá al interesado un plazo de diez días para que subsane las deficiencias; si no lo hace en dicho plazo, se considerará que renuncia a solicitud, y se dictará la resolución correspondiente según lo dispuesto en el art. 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| **4.- Diru-laguntzak emateko prozedura** | **4.- Procedimiento de concesión de las subvenciones** |
| Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera emango dira diru-laguntzak. | Las subvenciones se concederán según los criterios determinados en los anexos de las presentes Bases para cada línea de subvenciones. |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| **5.- Diruz lagundutako jardueren finantziazioa**<br><br>1. Oinarri hauen eranskinetan dauden diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarriek ekarpen propio bat eska dezakete diruz lagundutako jarduera finantzatzeko. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako fondoen ekarpen propioa egiaztatu egin beharko da, jardueran izandako gainerako gastuen modura.<br><br>2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatutakoari utzi gabe.<br><br>3. Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik ez beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekurtso batzuekin batera.<br><br>**6.- Tramitazioa**<br><br>Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako jarritako irizpideen arabera tramitatuko da diru-laguntza.<br><br>**7.- Ebazpena**<br><br>Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera egingo da diru-laguntza emateko ebazpena.<br><br>**8.- Zuzkidura eta aurrekontu-partida**<br><br>Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuaren urteko | **5.- Financiación de las actividades subvencionadas**<br><br>1. Las bases de las diferentes líneas de subvenciones que se encuentran en los anexos de las presentes pueden pedir una aportación propia para financiar la actividad subvencionada. La aportación propia de los fondos dispuestos para la actividad subvencionada se deberá acreditar igual que el resto de los gastos de la actividad.<br><br>2. Si en los anexos de cada línea de subvenciones no se dispone lo contrario, las subvenciones recogidas en estas bases serán compatibles con las subvenciones, ingresos o recursos concedidos con el mismo objeto por otras administraciones u organismos públicos o privados del Estado, de la Unión Europea o de la comunidad internacional, sin perjuicio de los dispuesto en el siguiente párrafos.<br><br>3. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá superar el coste de la actividad subvencionada, ya sea aisladamente o sea en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos.<br><br>**6.- Tramitación**<br><br>La subvención se tramitará según los criterios dispuestos para cada línea de subvenciones en los anexos de las presentes bases.<br><br>**7.- Resolución**<br><br>La resolución de concesión de las subvenciones se hará según los criterios dispuestos para cada línea de subvenciones en los anexos de las presentes bases.<br><br>**8.- Dotación y partida presupuestaria** |

| | |
|---|---|
| deialdian adieraziko da zeintzuk diren diru-laguntzen zuzkidurak eta aurrekontu-partidak.<br><br>Baldin eta aurrekontu-kontsignazio erabilgarriarekin ez bada iristen eskatutako zenbateko osoa estaltzeko, oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera banatuko da eman beharreko zenbatekoa.<br><br>Hala ere, diru-laguntza lerro bakoitzerako jarritako zenbatekoa handitu daiteke, udal aurrekontua gauzatzeko arauetan jasotakoarekin bat etorriz, baldin eta deialdi bakoitzean hala zehazten bada.<br><br>Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu edo txikitu daiteke, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik; aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena daukan organoak egingo du hori, beste deialdi bat egin beharrik gabe.<br><br>Emango diren diru-laguntzak Gizarte Zerbitzuen aurrekontuaren kargura finantzatuko dira eta urteroko deialdian zehaztuko da ondoko diru-laguntza lerro bakoitzerako emango den kopurua:<br><br>1. Tolosako udalerrian eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak elkarteei.<br><br>2. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko jarduerak egiteko diru-laguntzak elkarteei.<br><br>3. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarteen mantenurako diru-laguntzak.<br><br>4. Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapenerako lankidetza proiektuak egiteko diru-laguntzak elkarteei. | El las convocatorias anuales del departamento de Servicios Sociales y Salud del Ayuntamiento de Tolosa se indicará cuáles son las dotaciones y las partidas presupuestarias.<br><br>En caso de que con la consignación presupuestaria no se llegue a cubrir todo el importe solicitado, el importe a conceder se repartirá según los criterios especificados para cada línea de subvenciones.<br><br>Sin embargo, el importe dispuesto para cada línea de subvenciones podrá ser aumentado, de conformidad con lo determinado en las normas de ejecución del presupuesto municipal, si así se especifica en cada convocatoria.<br><br>El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.<br><br>Las subvenciones se financiarán al cargo presupuestario de Servicios Sociales y en la convocatoria anual se concretará la cantidad subvencionable para cada línea:<br><br>1. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización para la transformación social en el municipio de Tolosa.<br><br>2. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades en el área de servicios sociales y salud.<br><br>3. Subvenciones para el mantenimiento de asociaciones del área de servicios sociales y salud.<br><br>4. Subvenciones a asociaciones para la realización de proyectos cooperación para |

| | |
|---|---|
| | el desarrollo en países empobrecidos. |
| 5. Nazioarteko lankidetzan boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak. | 5. Subvenciones para personas que colaboran voluntariamente en cooperación internacional. |
| 6. Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko diru-laguntzak. | 6. Subvenciones para la realización de proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia. |
| **9.- Erakunde edo pertsona onuradunen betebeharrak** | **9.- Obligaciones de la entidad o personas beneficiarias** |
| Hauek dira pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain: | Son obligaciones de la entidad o persona beneficiaria, además de las recogidas en los correspondientes anexos: |
| — Diru-laguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera bereganatuko du. | — Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones. |
| — Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela diru-laguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak. | — Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención. |
| — Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu. | — Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones. |
| — Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzarioko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du. | — Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores. |
| — Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalekoak egunean dituela egiaztatuko du. | — Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que |
| Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizunpeko aitorpena | |

| | |
|---|---|
| aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:<br>— Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean deialdian.<br>— Tolosako Udaleko organo eskudunak hala erabakitzen duenean, diru-laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa dela-eta behar bezala justifikatutako kasuetan.<br>— Administrazio publikoei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru-laguntzak direnean, baldin eta diru-laguntzaren oinarri espezifikoetan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.<br>— Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko ematen zaizkien diru-laguntzetan.<br>Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimen bat sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapenak; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.<br>Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik | se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Tolosa.<br>La presentación de declaración responsable, sustituirá a la presentación de las certificaciones de los correspondientes organismos, entre otros, en los siguientes casos:<br>— Aquellas en las que la cuantía a otorgar a cada persona beneficiaria no supere en la convocatoria el importe de 3.000 euros.<br>— Aquellas que, por concurrir circunstancias debidamente justificadas, derivadas de la naturaleza, régimen o cuantía de la subvención, establezca el órgano competente del Ayuntamiento de Tolosa.<br>— Las subvenciones otorgadas a las Administraciones Públicas, así como a los organismos, entidades públicas y fundaciones del sector público dependientes de aquéllas, salvo previsión expresa en contrario en las bases específicas de la subvención.<br>— Las subvenciones destinadas a financiar proyectos o programas de acción social y cooperación internacional que se concedan a entidades sin fines lucrativos, así como a federaciones, confederaciones o agrupaciones de las mismas.<br>Para los demás casos, la persona o entidad solicitante podrá incluir en la solicitud la autorización para que el órgano concedente obtenga de forma directa la acreditación del cumplimiento de las |

| | |
|---|---|
| Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, tokiko erakundeak berak ziurtagiri bat egingo du, Tolosako Udaleko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko; ziurtagiri hori espedienteari erantsiko zaio. | obligaciones tributarias y con la Seguridad Social a través de certificados telemáticos, en cuyo caso no deberá aportar las correspondientes certificaciones. |
| | Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Tolosa y como quiera que el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, reconoce el derecho de los ciudadanos a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente. |
| — Lau urteko epean gordeko ditu jasotako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak (dokumentu elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako. | — Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años. |
| — Organo emaileari jakinaraziko dio nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu baditu, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko. | — Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales. |
| — Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du. | — Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención. |
| — Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan. | — Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la ordenanza general. |
| — Diruz lagundutako jarduerararen zabalkunde-ekintzetan, Tolosako Udalaren diru-laguntza jaso duela adieraziko du. | — En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Tolosa. |
| — Jarduera egitean, pertsonen oinarrizko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko ditu. | |
| Elkarte eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute. | |
| Era berean, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorraren arabera, 7. artikuluan, ondorengo irizpidea jartzen da: “Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak | |

| | |
|---|---|
| edo emakumeen bereizkeria eragin ditzakeen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna". | — En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.<br><br>En lo referente al euskera, la asociación solicitante deberá cumplir lo especificado en las ordenanzas municipales.<br><br>De la misma manera, según el artículo 7 de la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus organismos públicos, será requisito imprescindible que toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género. |
| **10.- Diru-laguntzen ordainketa**<br><br>Orokorrean, emandako diru-laguntzak ez du gaindituko aurkeztutako eskaeran aurreikusten den kostu guztiaren %80a, elkartearen mantenu gastuetan izan ezik, kasu horretan gastuaren %100a asumitu ahal izango baita, beti ere ez bada gainditzen horretarako ezarritako muga.<br><br>Eskatzaileak, aukeratu ahal izango du eskaera egiterakoan diru-laguntzaren ordainketa zein modalitateetan egitea nahi duen, honako aukera hauek izango dituelarik: | **10.- Abono de las subvenciones**<br><br>Con carácter general, la subvención concedida no superará el 80 % del coste total previsto en la solicitud aportada, salvo en los gastos de mantenimiento de la asociación, en cuyo caso se asumirá el 100 % del gasto, siempre que no supere el límite establecido para ello.<br><br>Al hacer la solicitud, el solicitante podrá elegir la modalidad del pago de la subvención entre las siguientes opciones: |
| a- Jasoko duen laguntzaren %100a ordainduko zaio ebazpenaren jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera. | a- El 100 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación. |
| b-Jasoko duen laguntzaren %50a ordainduko zaio ebazpenaren | |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera; eta gastuaren justifikazioa onartutakoan gainerako %50a aurreratuko zaie.<br><br>c-Jasoko duen laguntzaren %75a ordainduko zaie ebazpenaren jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera, eta egindako ekintza edo proiektua amaitutakoan, justifikazioa aurkeztutakoan egingo da likidazioa.<br><br>Hasieratik onartu eta aurreratu zaion diru-laguntza agortu ez badu onuradunak, aplikatu ez dituen soberakinak dagokien interesarekin itzuli beharko ditu.<br><br>**11.- Diru-laguntzaren xedea justifikatzea**<br><br>Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean jarritakoaren arabera justifikatuko da diru-laguntzaren erabilera, eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdian jarritako epean aurkeztu beharko da.<br><br>Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorraren 28. artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu, laguntza eman duen organoaren aurrean. Ordenantza espezifiko batean, hitzarmenaren testuaren edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean zehaztuko da diru-laguntzak justifikatzeko modua. Diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. | b- El 50 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación; el restante 50 % se les abonará por adelantado al aprobarse la justificación del gasto.<br><br>c- El 75 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación, y una vez finalizada la acción o el proyecto realizado, se efectuará la liquidación después de que se aporte la justificación.<br><br>Si el beneficiario no ha agotado la subvención aprobada y adelantada desde el principio, deberá reintegrar con los correspondientes intereses el remanente no aplicado.<br><br>**11.- Justificación del destino de la subvención**<br><br>La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Tolosa y deberá presentarse en el plazo que se establezca en la convocatoria anual del Departamento de Servicios Sociales.<br><br>Tal y como se establece en el art. 28 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos, la persona beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos e ingresos ante el organo concedente de la subvención. La modalidad de justificación de subvenciones vendrá especificada en ordenanza específica, en el texto del convenio o en la |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako diru-laguntza.<br><br>Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrean (30. artikuluan) jasotakoari jarraiki, Justifikazio Kontu Erraztua erabiliko da horretarako, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:<br><br>— Jarduera memoria bat diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan (ahal den neurrian, datu guzti hauek aurkeztuko dira sexuen arabera banatuta).<br><br>— Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa epeak adierazita.<br><br>— Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.<br><br>— Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli dioen <u>ordainketa gutuna</u>.<br><br>Emandako diru laguntzaren zenbatekoaren %25eko kopurua gainditzen duten egiaztagiri guztiez gain, lagin-teknikaren bidez aukeratutakoak egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, diru-laguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko. Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafiko juridikoan, | resolución de concesión directa. Se deberá justificar el 100 % del proyecto, actividad o programa subvencionado.<br><br>En caso de que los gastos justificados fueran menores que los presupuestados, la subvención concedida se minoraría en el mismo porcentaje.<br><br>En el artículo 30 de la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus organismos públicos, y según el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, se utilizará la cuenta justificativa simplificada, teniendo en cuenta la siguiente documentación:<br><br>— Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos (en la medida de lo posible, los datos se presentará distribuidos según el sexo).<br><br>— Una relación en la que se clasifiquen los gastos y las inversiones, indicando el acreedor y el documento, la fecha y los tiempos de pago.<br><br>— Una especificación de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.<br><br>— Una <u>carta de pago</u> que indique los reintegros de los remanentes no aplicados y los intereses derivados de los mismos.<br><br>A través de una técnica de muestreo se comprobarán los justificantes de gasto pertinentes a fin de obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. En todo caso, los justificantes de gasto serán justificantes originales del gasto realizado y demás |

| | |
|---|---|
| erregelamendu bidez jarritakoaren arabera.<br><br>Hegoaldeko herrialde pobretuetan egiteko proiektuen justifikazioetan ere onartuko dira gastuen justifikanteen fotokopiak, baldin benetakotasun ziurtagiri batekin badatoz eta proiektuarekiko zuzeneko lotura adierazten bada kontzeptuan.<br><br>Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe.<br><br>**12.- Publizitatea**<br><br>Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda (www.tolosa.eus).<br><br>Bestalde, diruz lagundutako edonolako programa, jarduera, inbertsio edo ekimenaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du diru-laguntzaren onuradunak, hizkuntza modu ez sexista erabilita. Era berean, publizitate hori egiterakoan emankumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestuko du, eta sustatuko ditu berdinatasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol aniztasuna eta genero identitateak jasoko dituen irudia.<br><br>**13.- Ebazpenean aldaketak ekar dezaketen arrazoiak.**<br><br>Elkarte onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, diru-laguntza eman duen organoari eska diezaiokete ebazpenean ezarritako epeak luzatzea dakartzaten aldaketak, emandako diru-kopurua murriztea edo jardueran | documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, en los términos establecidos reglamentariamente.<br><br>En las justificaciones de los proyectos de desarrollo en países empobrecidos del sur también se admitirán fotocopias de los justificantes de gasto acompañadas de un certificado de autenticidad, señalando en el concepto la vinculación directa al proyecto.<br><br>La memoria justificativa de la subvención se redactará prioritariamente en euskera, sin perjuicio del derecho de los o las interesadas de hacerlo en una de las dos lenguas oficiales.<br><br>**12.- Publicidad**<br><br>La relación de subvenciones concedidas será publicada en la página web del Ayuntamiento (www.tolosa.eus) y en el tablón de anuncios municipal.<br><br>Por otro lado, la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje. Del mismo modo, se evitará cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se promoverán valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.<br><br>**13.- Circunstancias que podrán dar lugar a la modificación de la resolución.**<br><br>Las entidades podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan |

| | |
|---|---|
| sartzen diren ekintzen aldaketa egitea; aldaketa horiek baietza jasoko dute ezusteko baten ondorioz sortuak izan badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak egiten badira, baldin eta diru-laguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada eta inoren eskubideak kaltetzen ez badira.<br><br>**14.- Diru-laguntzak itzultzea**<br><br>Oinarri hauetan edo diru-laguntzaren emakidan jarritako edozein betebehar betetzen ez bada, berriz aztertuko da diru-laguntza, eta, horren arabera, emandako diru-laguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da, abenduaren17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. eta 52. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusten duen baldintzetan.<br><br>1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutze-interesak ere ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta, bereziki, hurrengo kasu hauetan:<br><br>— Diru-laguntza eskuratzeko jarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatuz lortu bada diru-laguntza.<br><br>— Diru-laguntzaren emakidaren oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.<br><br>— Jasotako diru-laguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo justifikazioa behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala balegokio, diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoen | ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.<br><br>**14.- Reintegro de subvenciones.**<br><br>El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la concesión de la subvención supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada, en los términos previstos en los artículos 37 y 52 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones.<br><br>1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en el artículo 37 Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y de manera especial en los siguientes casos:<br><br>— Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.<br><br>— Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.<br><br>— Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en las bases 10 y 11 y, en su caso, en las bases reguladoras |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| arabera. | específicas de cada línea de subvenciones. |
| — Diru-laguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea. | — Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en la resolución de concesión. |
| — Indarrean diren legeetan aurreikusitako egiaztatze eta kontrol finantzarioko jarduerei aurre egitea, aitzakiak edo eragozpenak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioko betebeharrak ez betetzea, baldin jokaera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularrak diren ikustea, edo xede berarekin estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio publiko edota erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea. | — Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la normativa vigente, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. |
| — Administrazioak onuradunei jarritako betebeharrak ez betetzea; edota onuradunek ez betetzea diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua egiteko edo jokabidea hartzeko moduan. | — Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las personas beneficiarias, así como de los compromisos por éstos asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención. |
| 2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak —berak bakarrik edo nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuk emandakoekin batera — gainditu egiten badu onuradunak aurrera eraman behar duen jardueraren kostua, emakida aldatu egingo da, eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina. | 2. Cuando el importe de las subvenciones o ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con la de otras concedidas por administraciones públicas o entes públicos o privados, nacionales o extranjeros, exceda del coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria, procederá a la modificación de la concesión y, si procede, al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la |

| | |
|---|---|
